

<b>Lanpostuaren deskribapena:</b>	Gaztelania/euskara itzultzaile teknikaria
<b>Erakundea:</b>	Kristau Eskoletako Anaiak - Bilbo Sektoreko Salletar Hezkuntza Sarea
<b>Lanpostuaren kokapena:</b>	Euskal Herrian
<b>Iraupena:</b>	Obra eta zerbitzu jakineko lan-kontratua
<b>Lanean hastea:</b>	Berehalakoa
<b>Baldintza ekonomikoak:</b>	Lan-hitzarmen kolektiboaren arabera
<b>Lan baldintzak:</b>	Lanaldi osoa

### **Lanpostuari dagozkion eginkizunak**

Bilbo Sektoreko Salletar Hezkuntza Sareko kudeaketa taldearen esanetara, eta beste talde eta arloekin koordinatuta:

- Unitate didaktikoen eta hezkuntza materialen itzulpen-lan teknikoa, Euskal Herriaren errealitatearen testuinguruan kokatuta.
- Hezkuntza arloko beste dokumentu batzuen itzulpen-lana.
- ITB (Ikaskuntzarako Testuinguru Berria) Proiektuaren ezartzean eta garapenean beharrezkoak izango diren beste itzulpen-lan batzuk.

### **Ezinbesteko baldintzak**

- Euskal Filologiako eta/edo Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketa ofizialak.
- Bulegotikaren eta teknologia berrien erabilera goi-maila.
- Erakundearen funtzionamenduan partaide izateko gogoia eta hezkuntza- zein gizarte-gaiekiko motibazioa.

### **Balioetsiko da**

- Itzulpen-lanetan eskarmentu bermatua.
- Hezkuntza arloan eskarmentu bermatua izatea.
- Ardurak hartzean, talde lanean eta lankidetzan aritzean eskarmentu bermatua izatea.

### **Lanpostuan jarduteko gaitasunak**

- Komunikatzeko eta harremanetarako gaitasuna.
- Pertsona ordenatu eta ekintzailea.
- Talde lanean aritzeko gaitasuna.
- Arazoei irtenbideak aurkitzeko gaitasuna.
- Pertsona arduratsua.

### **Aurkezteko epea**

- 2021ko ekainaren 25era arte.

### **Oharra**

Bidali curriculuma posta helbide honetara: [rrhh-sectorbilbao@lasalle.es](mailto:rrhh-sectorbilbao@lasalle.es) (erref. 2021 Itzultzaile).